

# ZZ eragilea :

*filao*  
FABRIC

**Lekua :** Bustintze Iriberry (Garaziren ondoan), e-salerosketa [www.filaofabric.fr](http://www.filaofabric.fr), Biarritzeko Open Gare saltoki kolaboratiboa eta BABko zonbait saltegiatan.

**Aktibitatearen aurkezpena :** Filao Fabric joste tailerra bat da, jantzi sorkuntzak egiten dituen handi eta ttikientzat, eta ehunezko gehigarriak, tailerreko oihal errestetarik eginak, egunerokoan hondakinen ttipitzeko.



Valérie 06 66 66 64 76



filaoFABRIC



## Valérie-ri hitza

Filao Fabric-eko jostuna

### Zer izan da abiapuntua Filao Fabric-aren sortzeko ?

Elkarte munduan hasi naiz josten, karitatezko eginkizunean. Eta Zero Hondakin familiako Jérémie Pichon entzuteko parada ukan dut Lekornen. Pizte bat izan da.



### Zertan parte hartzen duzu ZHZXan ?

Nere tailerrean, sortze oparietarik gelditzen zaizkidan ehunekin zero hondakin erosgai garbigarriak egiten ditut : oihalñoak, mustukak, azpil estalkiak... eta bertako hondakinak erabiltzen ditut (kakao baben zakuak, gerezien hezurak, guata) beste zerbaiten egiteko (zakuak, berontzi idorrak, zafu kuxina).

Nere eguneroko bizian, nahiz eta usutan behaztopatzen naizen bi nerabeen ama izanki, aitzina segitzen dut (AMAP, konposta, berrerabiltze tokia).



### Zoin abilezi emango zenuke ZHZX dinamikan sartzeko?

Biziki sinpleak eta didaktikoak diren liburuak irakurri (zero hondakin familia, "bisous" metodoa) eta instagram kondu onak segitu ("la saladeatout").

Kontsumitze nahia heldu delarik "Bisou" metodoa erabili.

Zure bidetik aldaratzen bazira ez duzu zure burua hobendun sentitu behar.

Urratsez urrats aitzinatu, zergaitik ez eguberriko ekintza simple batekin hasiz: zure opariak furoshiki metodoarekin bildu? Errex eta polita da.



bit ta  
garbi

Communauté  
d'ASSOCIATIONS  
PAYS BASQUE  
EUSKAL  
HIRIKO  
Elkargoa



CCBG

terre de partage

TERRITOIRE  
ZÉRO DÉCHET  
zér  
GASPILLAGE

[biltagarbi.eus](http://biltagarbi.eus)